

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak bat egin du Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, eta astebetzez jarduerak antolatu ditu

*'Eskubide guztiak pertsona guztientzat' Aldarrikapen Unibertsalaren 70. urteurrenean*

Astelehena, 2018.eko abenduak 10

Nafarroako Gobernuak, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bat egin du aurten ere Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin; Nazio Batuen Erakundeak Aldarrikapena 1948ko abenduaren 10ean onartu zuenez, aurten 70 urte beteko dira.

70 urte horietan zehar, aurrerapen garrantzitsuak egin dira, baina, egun, oraindik ere, eskubideak urratzen jarraitzen da munduko une eta leku bakoitzean. Hori dela-eta, Giza Eskubideak defendatzen lan egiten duten pertsonen, elkarten, erakundeen eta instituzioen lana oso garrantzitsua da.

*Eskubide guztiak pertsona guztientzat* leloa hautatu dute oroimenerako. Jarduera-eskaintzarekin adin guztietako herritarrengana iritsi nahi da; horrela, hitzaldiak, dokumentalak, tailerrak, ipuinak, antzerkia, txotxongiloak, elkarteekin topaketak eta dantza diziplinak garatuko dira Giza Eskubideen gainean sentsibilizatzeko eta munduarekiko begirada irekitzeko. Zikloa astelehenean, abenduaren 10ean, abian jarriko da, Giza Eskubideei buruzko hausnarketa egitera eta giza eskubideen alde pertsona bakoitzak egin dezakeguna aztertzeraz gonbidatzen gaituen bideoarekin. Jarduera ezberdinak antolatu dira abenduaren 12tik 16ra bitarte.

### Ikastetxeentzako eskaintza



2018 ABENDUA

12	13-14	14	15	16
<b>ASTEAZKENA MIERCOLES</b> 9:30 / 11:15 Gizakien Eskubideen Nazioarteko Erakundearen 70. urteurrenaren ospakizuna MADRID	<b>OSTEGUNA ETA OSTIALA</b> <b>VIERNES Y VIERNES</b> 10:00 GIZAKIEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN 70. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA TEATRO GAFARRE	<b>OSTIRALA</b> <b>VIERNES</b> 10:00 GIZAKIEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN 70. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA TEATRO GAFARRE	<b>LARUNBATA</b> <b>SABADO</b> 11:00-15:00 SABADO PASALEKUA	<b>IGANDEA</b> <b>DOMINGO</b> 11:00 MADRID
<b>GIZA ESKUBIDEAK</b> Gizakien Eskubideen Nazioarteko Erakundearen 70. urteurrenaren ospakizuna MADRID	<b>MEMORIA DUTEN GIZAKIAK</b> Gizakien Eskubideen Nazioarteko Erakundearen 70. urteurrenaren ospakizuna MADRID	<b>"DONDE EL BOSQUE SE ESPESA"</b> Teatro MADRID	<b>ENCUENTRO CON ASOCIACIONES</b> TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS MADRID	<b>AF ANDANZA</b> Dantza MADRID

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Ekintzen egitaraua.

Bake, Bizikidetza eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiak oso kontuan hartzen ditu ikastetxeak eta belaunaldi berriak, antolatzen dituen sentsibilizazio-ekimenetan. Oraingoan, bi jarduera eskaini ditu ikasleei begira, gelan Giza Eskubideen inguruan aurretik eta ondoren egin daitezkeen lan-proposamen gisa.

Abenduaren 12an, Iruñeko Planetarioan, bost artista bilduko dira: Boni Ofogo, Maider Galarza, Amaia Arriaran, Dorleta Kortazar eta May Gorostiaga, eta Giza Eskubideei buruzko ipuinak kontatuko dituzte hitzaren, jolasaren eta irudimenaren bitartez hausnarketa bultzatzeko helburuarekin. Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, goizean bi saio eskainiko dira, bat euskaraz eta bestea gazteleraz, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat.

Era berean, Gaiarre Antzokiarekin elkarlanean, abenduaren 13an eta 14an, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako hainbat ikastetxetako 1.500 bat ikasle Gaiarre Antzokira joango dira "Donde el bosque se espesa" emanaldia ikustera.

### **Herritarrentzako eskaintza**

"Donde el bosque se espesa" obra bera eskainiko da abenduaren 14an, ostiralean, 20:00etan, Gaiarre Antzokian, publikoarentzat oro har. Obra honetan, bidaia bat egiten da egungo Espainiatik abiatu eta Balkanetako gerretan amaitu arte, baina bidean Espainiako Gerra Zibila eta Munduko Bigarren Gerra, behartutako erbestealdia, deportazioa, kontzentrazio-eremuak, hobi komunak, e.a. igarotzen dira. Emanaldiaren amaieran, topaketa egingo da publikoarekin. Sarrerak Gaiarre Antzokian eros daitezke.

Asteari abenduaren 16an emango zaio amaiera, 19:00etan, Baluartean, Af Ndanza taldearen dantza, mimo eta antzerki emanaldiarekin. Taldea Mbabazi Joana, Yiga David, Wasswa Swaibu Semwogere, Kalule Michael, Mukabi Jeremiah eta Musisi Paul lagunek osatzen dute, eta Af Ndanza taldea Ugandan Música para salvar vidas GKEk burututako proiektu humanitariotik sortua da. Taldearen zuzendari artistikoa Elisabeth Michot da. Ikuskizunaren lehen zatian, Afrika marraztuko dute gorputzen bitartez. Bigarren zatia, berriz, emakumeen genitalen mutilazioa salatzen balio duen antzezlan txikia da. Sarrera doakoa da, eta gonbidapenak Baluarteko leihatiletan jaso daitezke.

### **Abenduak 15, Giza Eskubideen aldeko Eguna elkarrekin batera**

Abenduaren 15ean, larunbatean, Nafarroako Gobernuak, beste 19 elkarterekin batera, jardunaldi bat antolatu du herritarrei Giza Eskubideen urraketaren errealitate ezberdinak eta Nafarroako ekimen ezberdinen bitartez burutzen diren elkartzasun eta konpromiso modu ezberdinak erakusteko asmoarekin. Bi karpa jarriko dituzte Sarasate pasealekuan: batetik, elkarrekin karpa bat egongo da, herritarrek zuzenean ezagutu ahal izateko egiten duten lana eta lantzen ari diren proiektuak; eta, bestetik, jardueren karpa jarriko da, 11:00etatik 20:00etara bitartean, jardueren etengabeko programazioa garatzeko: hitzaldiak, dokumentalak, lekukotzak, tailerrak, haurrentzako txotxongiloak, labirintoak,...

Hori guztia Giza Eskubideen alde lan egiten duten 19 elkarterekin elkarlanean antolatu da; besteak beste, Nafarroako Gurutze Gorria, Amnistia Internazionala, IPES Fundazioa, Artoaren Emakumeak Elkartea, Flor de África, Mugarik gabeko Arkitektura, UNICEF, Médicus Mundi, Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka sarea, Chrisallys Euskal Herria, Papeles y Derechos Denontzat Herritar Plataforma, SOS Racismo Nafarroa, ACNUR, CEAR, Derecho a Morir Dignamente Nafarroa, ZASKA, Munduko Medikoak eta Oxfam-Intermón.

Nafarroako Gobernuak jardueretan parte hartzera eta pertsona guztientzat eskubide guztiak errespetatzen dituen gizarte eraikitzen laguntzera animatu nahi ditu herritarrak.



Ezkerretik eskuinera, Bizikidetza Ataleko buru Irati Goikoetxea; Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibar, zein Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zerbitzuko zuzendari Jose M<sup>a</sup> Gonzalez.